



**1768/2022 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakao ESiko Aparatu Digestiboko Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den**

### AURREKARIAK

Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearen irailaren 5eko 1332/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakao ESiko Aparatu Digestiboko Atal Sanitarioko Burua lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urriaren 25eko EHAA 204. zk. eta 2022ko azaroaren 2ko BOE 263. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko azaroaren 23an amaitu zen.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barrualde-Galdakao ESiko Aparatu Digestiboko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Barrualde-Galdakao ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakaon, 2022ko abenduaren 1ean.



Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentea,  
JON GUAJARDO REMACHA



**I. ERANSKINA**

**BARRUALDE-GALDAKAO ESI-KO APARATU DIGESTIBOKO ATAL  
SANITARIOKO BURUA- IZENEKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Margarita Durán Rigueira

Baztertuak:

- Inor ez